

SAGARDOA BOTATZEKO TEKNIKAN MAISU

Igande honetan, 40. aldiz aterako dira usurbildarrak eta inguruko herrietako beste hainbat sagardozale frontoi ingurura. Eta ez da gutxiagorako, XL. Sagardo Eguna ospatuko da herrian ohiko moduan. 2020 eta 2021ean ezin izan zen Sagardo Egunik ospatu, baina bigarren urtez jarraian normaltasun osoz egin ahal izango da. Usurbildarrak herriaren egun handirako prestatzen hasi dira jada, bai antolatzaile eta partehartzaileak, bai eta frontoi ingurura hurbilduko direnak, aurtengo sagardoaz gozatzeraz.

“Saria ez da bilatzen dugun zerbait. Ez da gure helburua”



2022an gaztetasuna izan zen nagusi. Unai Aizpurua (erdian), Beñat Arruti (ezkerrean) eta Leire Furundarena (eskubian) nabarmendu ziren iazko lehiaketan.

Sagardo eskaintza zabala eta pin-txoak dastatzeko aukera egongo da frontoi inguruan eta Askatasuna plazan goiz osoan zehar. Horrekin batera, botatzaileen lehiaketa ere izango da sagardoa jaurtitzen ariren diren dozenaka eta dozenaka herritarren artean hiru onenak aukeratzeko. Joan zen urtean, pandemia osteko lehen ohiko Sagardo Egunean, hiru garaile izan ziren: Unai Aizpurua lehen postuan, bigarrenen Beñat Arruti eta hirugarren Leire Furundarena. Gaztetasuna izan zen nagusi 2022an.

Lehen aldiz sarituak

Beñat Arrutik lehen aldiz zuen saria jasotzera igotzen, Leire Furundarenak bezalaxe. Leire Furundarenak gogoan du nola bere izena esan zuten mikrofonotik: “Oso harrituta geratu nintzen nirea esan zutenean”.

Urte askotan ibili dira biak botatzaile lanetan, 10-12 urte daramatzala uste du kalezartarrak, 18 urte zituenetik urtero animatu baita. Furundarenaren kasuan, zerbait gutxiago, 4 edo 5. Azken hau Olatz Arregi lagunarekin ateratzen da urtero, eta hark ere saria irabazia du, 2019ko Sagardo Egunean hain zuzen.

Beñat Arrutik behin ere ez du saria helburu gisa jarri: “Ez da inoiz bilatzen dudana zerbait izan, joan zen urtean ere saria jaso banuen ere, ez nintzen haren bila joan”. Sagardo Eguna beste ikuspuntu batetik bizitzeko aukeratzen du botatzaile lanetan aritzea, eta aurten ere frontoi inguruko posturen batean topatuko du koadrillako lagunekin egunaz gozatzeraz hurbiltzen denak: “Ez dut etxean praktikatzen eta eguna iristean eta lehen botilak irekitzean arrotza egiten zait egoera. Jendea

diogun errespetuagatik hasi aurretik pixka bat praktikatzen dugu”. Leire Furundarenak ere ez du etxean praktikatzen, baina hamaiketako egin aurretik pixka bat praktikatzen omen du “erdi brometan”.

“Aurten ere aterako al gara, Olatz?”

Goiz partean, frontoian eta plaza inguruan izango den sagardo dastatzearen ondotik, azpiegiturak egokitu edota zerbitzatze lanetan aritu diren lagunak bazkaritarako bilduko dira Udarregin. Botatzaile askorentzat momentu ederra izaten da bazkaritan inguruan botatzen izan dituztenekin denbora partekatzeko aukera izan eta bazkari eder bat osatzea, edo hori diote joan zen urtean saria irabazitakoek. Ohitura onak galdu gabe, Leire Furundarenak gonbidapena luzatu nahi dio Olatz Arregiri: “Aurten ere aterako al gara?”.